

musikene

20 urteurrena aniversario

# MSKN MASTER ENSEMBLE



# PROGRAMA

**FREDERIC CHOPIN:**
*Préludes op. 28*

**RAMON LAZKANO:**
*Préludes, pour ensemble*

# JOSÉ LUIS ESTELLÉS

ZUZENDARIA



# JOSÉ LUIS ESTELLÉS

ZUZENDARIA

Béteran jaio zen (Valentzia). Musikari gisa egin duen ibilbide profesionala era askotarikoa izan da, bereziki klarinetearen eta orkestra zuzendaritzaren inguruan garatua. Gaur egun ganbera musika irakaslea da Koloniako (Alemania) Hochschule für Musik und Tanz ikastegian eta klarinete irakasle eta MSKN Master Ensembleren zuzendari Musikenen.

Azken ikastegi horren sorreratik izan da bertako kide, Orkestra Ikasketen zuzendari (2003-2009) eta Zuzendari Artistiko (2008-2010) karguak ere izan dituelarik.

Interpretatzaile gisa, Orquesta Ciudad de Granadan egin duen lana (1991-2021) bakarlari eta ganbera musikari gisa egin duenarekin uztartu du nazioartean jarduera bizia garatuz, Europa, Mexiko, Estatu Batuak eta Japonian ere jardun delarik zuzendari, orkestra, bakarlari eta ganbera talde askorekin.

José Luis Estellés sarritan gonbidatzen dute beste ikastegi eta jaialdietan irakasle gisa aritzeko, eta epai mahai kide ere izan da nazioarteko hainbat lehiaketatan. Ezaguna da musika garaikidea bultzatzeko hamarkadatan egin duen lana, ia ehun obra estreinatu dituelarik Orkestra zuzendari edo zuzendari bakarlari gisa Espainian, Frantzian, Belgikan, Alemanian, Ingalaterran, Bulgarian eta Mexikon aritu da azken urteotan orkestra ugarirekin, interes berberarekin ekiten diolarik musika sinfonikoari, sorkuntza garaikideari, operari eta grabazioei.

Bai zuzendari gisa eta baita klarinete jotzaile gisa ere Europako zenbait zigilurekin egin ditu grabazioak, aldizkari espezializatuetan aitormen ugari jasoz. 2015etik Ibs Classical zigiluarentzat grabatzen du.

Nació en Bétera (Valencia). Su trayectoria profesional como músico es muy diversa, desarrollándose principalmente entre el clarinete y la dirección orquestal. En la actualidad es profesor de Música de Cámara en la Hochschulefür Musik und Tanz de Colonia (Alemania) y profesor de clarinete y director del MSKN Master Ensemble en Musikene, institución a la que pertenece desde sus inicios y donde ha ocupado los puestos de director de Estudios Orquestales(2003-09) y Director Artístico (2008-10).

En su faceta de intérprete, ha combinado su trabajo en la Orquesta Ciudad de Granada (1991-2021) con una intensa actividad internacional como solista y músico de cámara que le ha llevado al resto de Europa, México, EE.UU. y Japón en colaboración con numerosos directores, orquestas, solistas y grupos de cámara.

José Luis Estellés es invitado frecuentemente como profesor en otros centros y festivales, y también como jurado en concursos internacionales. Realiza desde hace décadas una reconocida labor en pro de la música contemporánea, habiendo estrenado casi un centenar de obras. Como director de orquesta o director-solista ha actuado durante los últimos años en España, Francia, Bélgica, Alemania, Inglaterra, Bulgaria y México con numerosas orquestas, abordando con idéntico interés la música sinfónica, la creación contemporánea, la ópera y las grabaciones.

Tanto como director como clarinetista ha grabado con varios sellos europeos, obteniendo numerosos reconocimientos en revistas especializadas. Desde 2015 graba para el sello Ibs Classical.



# RAMON LAZKANO

KONPOSITOREA

Ramon Lazkanok (Donostia, 1968) konposizioa Donostian, Parisen eta Montrealen ikasi zuen; Pariseko Goi-Mailako Musika Kontserbatorio Nazionaleko Konposizio Lehen Saria eta Pariseko Ecole des Hautes Etudes en Sciences Sociales-en XX. Mendeko Musika eta Musikologiaren Doktoretza Ikasketen Agiria eskuratu zituen. Prince Pierre de Monaco Fundazioaren Saria eta Frantziako Arte Ederren Akademiaren Georges Bizet Saria lortu ditu, baita Musika Bulegoa saria ere, beste batzuen artean. Egoile izan da Espainiako Gazteen Orkestra Nazionalarekin, Estrasburgoko Musica festibalean eta 2e2m musikataldearekin.

Erroman pasatako garaiak (Espainiako Akademia Errealean eta Frantziako Villa Medici Akademian) musikagintzaz eta egun duen helburuez erreflesioa sakontzeko aukera eman zion, lan enblematikoak sortaraziko zuen intertestualitate, isiltasun eta soinuaren esperientziarekiko arreta sendotuz: Ilunkor (Euskadiko Orkestra Sinfonikoaren enkargua), Hauskor (Madrilgo Erkidegoko Orkestraren enkargua) eta Ortzi Isilak (Orquesta Nacional de Españaren enkargua). 2012ko ekainean, Bavierako Irratiko Orkestra Sinfonikoak Peter Eötvösek zuzendurik Ilunkor jo zuen Municheko Musica Viva saioetan eta 2014ean Veneziako Biennaleak Ortzi Isilak aurkeztu zuen Shizuyo Oka eta Euskadiko Orkestra Sinfonikoarekin José Ramón Encinarrek zuzendaritzapean. Kairos Music-ek cd monografiko bat argitaratu zuen hiru lan aipagarri hauekin (Ilunkor, Ortzi Isilak, Hauskor).
Ramon Lazkanok 2001 eta 2011 bitartean bere Igeltsoen Laborategian lan egin zuen, zenbait zikloetan multzokatzen diren ganbera musika lanen kolekzioa, Jorge Oteiza eskultorearen "laborategi esperimentalaren" kontzeptuan oinarriturik eta bereziki klarionarenean, inskripzio, higadura eta haurtzaroari lotutako gaitzat harturik; Laborategiaren asmo estetikoa Mugarri (2010) lanean burutu zen, Espainiako Orkestra Sinfonikoen Elkartearen eta Nafarroako Orkestra Sinfonikoaren enkargua. Laborategiko musikalanak Austria, Alemania, Polonia, Frantzia, Mexico eta Espainian estreinatu ziren; Frankfurten ensemble recherchek, Parisen 2e2m taldeak, Bruselan Ars Musicak eta los Angelesen Monday Evening Concerts saioek kontzertu bereziak programatu dituzte Laborategiaz, eta bi cd monografiko grabatu dituzte ensemble recherche eta Smash taldeek.

Laborategia ondoren, sortu berri diren lanek arkitekturaren eta irautearen kezka berria azaltzen dute, halanola Lurralde-k hari laukotearentzat, Diotima laukotearentzako idatzia, eta Edmond Jabèsen La mémoire et la main-etik jasotako poemekin konposatutako diptikoak: Main Surplombe, 2013ko martxoan Ars Musican estreinatua, eta N°2 Ceux à Qui, Coupleux-Lassalle Fundazioak enkargatua eta Neue Vocalsolisten eta Ensemble L'Instant Donnék 2015ko otsailean Stuttgarteko Éclat Festivalean estreinatua. 2015eko ekainean, halanola New Yorken Talea Taldearekin 2016eko abenduan, Musikfabrik Taldeak Peter Rundelen zuzendaritzapean Siemens Fundazioak eta Goethe Institutuak enkargatutako Erlantz estreinatu zuen.

Pariseko Udazkeneko Festivalak hiru kontzertutako portreta eskaini zuen 2016ean, zeinean nabari izan ziren Ravel (Scènes) lanaren enkargua eta estreinua, hala nola Laborategiko zatiak Ensemble Intercontemporain eta Matthias Pintschereen eskuetan. 2017ko otsailean, Radio Franceko Présences Festibalak portreta osatu zuen Diotima Laukoteak estreinatutako Etze-rekin (Radio Franceren enkargua), Mugarri-ren Radio Franceko Orkestra Filarmonikoaren emanaldiarekin (grabaketa Unescoren Nazioarteko Tribunak hautatua) eta lehenbiziz osorik Jabès diptikoarekin. 2017an, Monte-Carloko Printemps des Arts-ek Hondar enkargatu eta estreinatu zuen Nizako Orkestra Filarmonikoarekin Pierre-André Valadek zuzendaritzapean, eta Monte-Carloko Orkestra Filarmonikoak grabatu zuen. Donibane Lohitzuneko Ravel Akademiako musikagile egoiliarra izan zen urte berean, bertan Petrikhor pianorako obra, Frantziako Kultura Ministeritzaren enkargua, estreinatu zelarik.

Ensemble Intercontemporain et Matthias Pintscher zuzendariak Ziaboga, 35 minutuko musikalana eskatu diote, 2019ko martxoan estreinatua. Urte berean, Alfonso Gómezek piano lan guztiekin kairos argitaletetxearentzat grabatutako diskak Charles Cros Akademiaren grand Prix du Disque jaso zuen. Azken garaiko proiektuen artean, Stuttgarteko Eclat Festivala eta Witten Musiktageen enkarguak izan dira.
Egun, Ramon Lazkano Musikene Euskal Herriko Goi-Mailako Musika Ikastegiko konposizio irakaslea da.

Ramon Lazkano (Donostia-San Sebastián, 1968) estudió composición en San Sebastián, París y Montreal; obtuvo el Primer Premio de Composición del Conservatorio Nacional Superior de Música de París y el Diploma de Estudios de Doctorado en Música y Musicología del siglo XX en la École des Hautes Etudes en Sciences Sociales. Ha recibido el Premio de Composición de la Fundación Prince Pierre de Mónaco y el Premio Georges Bizet de la Academia de Bellas de Artes de Francia, así como el Premio Musika Bulegoa, entre otros. Ha estado en residencia con la Joven Orquesta Nacional de España, en el Festival Musica de Estrasburgo y con el Ensemble 2e2m en París.

Su estancia en Roma (en la Real Academia de España y en la Academia de Francia Villa Médicis) le ha permitido profundizar en la reflexión sobre el propósito de la composición y su significado, que se cristaliza en un pensamiento sobre la intertextualidad, el silencio y la experiencia del sonido, que ha hecho nacer piezas emblemáticas como Ilunkor (encargo de la Euskadiko Orkestra Sinfonikoa), Hauskor (encargo de la Orquesta de la Comunidad de Madrid) y Ortzi Isilak (encargo de la Orquesta Nacional de España). En junio de 2012, la Orquesta Sinfónica de la Radio de Baviera dirigida por Peter Eötvös interpretó Ilunkor en el festival Musica Viva de Múnich y en 2014 la Bienal de Venecia programa Ortzi Isilak con Shizuyo Oka y la Orquesta Sinfónica de Euskadi dirigida por José Ramón Encinar . El sello Kairos ha publicado un disco monográfico con estas tres obras orquestales (Ilunkor, Ortzi Isilak, Hauskor). Entre 2001 y 2011 ha trabajado en Igeltsoen Laborategia (Laboratorio de Tizas), una extensa colección de piezas de cámara compuesta por varios ciclos, que toma como referencia el concepto oteiziano del "laboratorio experimental" y en particular el de la tiza como materia de inscripción, de erosión y de memoria ligada a la infancia, cuyo propósito estético culmina con Mugarri (2010), encargo de la AEOS y de la Orquesta Sinfónica de Navarra. Las piezas del Laboratorio se han estrenado en Austria, Alemania, Polonia, México, Francia y España; el ensemble recherche en Frankfurt, el Ensemble 2e2m en París, Ars Musica en Bruselas y Monday Evening Concerts en Los Ángeles han programado antologías del Laboratorio, y los ensambles recherche y Smash le han dedicado dos cds monográficos.

Tras el Laboratorio, sus obras más recientes muestran una nueva atención a la arquitectura y a la duración, como en Lurralde (Territorio) para cuarteto de cuerdas, escrito para el Cuarteto Diotima, y el díptico vocal basado en poemas de Edmond Jabès tomados de su libro La mémoire et la main: Main Surplombe, estrenado en marzo de 2013 en Ars Musica en Bruselas, y Ceux à Qui, encargo de la Fundación Coupleux-Lassalle y estrenado por los Neue Vocalsolisten y el Ensemble L'Instant Donné en el festival Éclat de Stuttgart en febrero de 2015 y posteriormente en Nueva York con el Talea Ensemble en diciembre 2016. El Ensemble Musikfabrik dirigido por Peter Rundel estrena en junio de 2015 Erlantz encargado por la Fundación Siemens y el Goethe Insitut.

El Festival de Otoño de París le dedica en 2016 un retrato en tres conciertos, en los que destacan el estreno de Ravel (Scènes), así como extractos del Laboratorio de Tizas por el Ensemble Intercontemporain y Matthias Pintscher.En febrero de 2017, el Festival Présences de Radio France completa el retrato con el estreno por el Cuarteto Diotima de Etze, encargo de Radio France, Mugarri por la Orquesta Filarmónica de Radio France y el Diptyque Jabès por primera vez completo. En 2017, el Printemps des Arts de Monte-Carlo encarga y estrena Hondar con la Orquesta Filarmónica de Niza dirigida por Pierre-André Valade y es grabada por la Orquesta Filarmónica de Monte-Carlo. Es compositor residente de la Academia Ravel de Saint-Jean-de Luz, donde se estrena Petrikhor para piano.

Matthias Pintscher y el Ensemble Intercontemporain le encargan  Ziaboga, una obra de 35 minutos estrenada en 2019 que sintetiza sus últimas preocupaciones en torno a la continuidad de la materia, su saturación, su productividad crítica y la forma emergente como catarsis. Un nuevo cd del sello Kairos presentado en 2019, con su obra para piano grabada por Alfonso Gómez recibe el Grand Prix du Disque de la Academia Charles Cros. Sus últimos proyectos han incluido encargos del Festival Eclat de Stuttgart y de Witten Musiktage.
Ramon Lazkano es actualmente profesor de composición en el Centro Superior de Música del País Vasco Musikene.



# RAMON LAZKANO

COMPOSITOR

FREDERIC CHOPIN *Préludes Op.28*

| | |
|---|---|
| 1, 2, 3 | Telmo Carvajal |
| 4, 5, 6 | Marta Rama |
| 7, 8 | Alberto Barba |
| 9, 10, 11, 12 | Miguel Ituarte |
| 13 | Samuel Arroyo |
| 14, 15, 16, 17 | Marta Zabaleta |
| 18 | Asier Oroz |
| 19, 20 | Ismael Gil |
| 21, 22 | Rocío Villaño |
| 23, 24 | Alberto Abengozar |



RAMON LAZKANO *Préludes, pour ensemble*

Flautak:

| | |
|---|---|
| I, IV, V, VI, VII | Mª Teresa López |
| VIII, IX, X, XI, XII | Natalia De la Vara |
| XIII, XVI, XVII, XIX | María Rabasco |

Klarineteak:

| | |
|---|---|
| I, IV, V, VII | Teresa Josefa Castañón |
| IX, X, XI, XIII | Leticia Del Monte |
| XV, XVI, XVIII, XIX | Xulián Suárez |

Gitarra:

| | |
|---|---|
| III, V, IX, X, XI, XII | Eduardo Martínez |

Akordeoia:

| | |
|---|---|
| II, IV, V, VI, VII, VIII<br>IX, X, XI. XIII, XIV,<br>XV, XVI, XIX | Víctor Vigo |

Pianoa:

| | |
|---|---|
| II, III, V, VIII | Vanessa Gardebien |
| X, XI, XII, XIII | Hiram Vega |
| XIV, XVI, XVII, XIX | Raquel Fernández |

Biolina:

| | |
|---|---|
| II, III, VI | Sergio Bolaños |
| VII, VIII, IX | Anaïs Sallés |
| X, XI, XII, XIII | Olivia Fernández |
| XV, XVI, XVII, XIX | Darío Muñoz |

Biola:

| | |
|---|---|
| I, II; III, IV, VI,<br>VII, IX, X, XI, XIII,<br>XVI, XIX | Raquel Romero |

Biolontxeloa:

| | |
|---|---|
| I, II, III, IV, VI, VII<br>VIII, IX, X, XI, XIII<br>XV, XVI, XIX | Eloise Fagalde |

AGENDA +

MUSIKENE.EUS

musikene

urteurrena
aniversario

